



MAKING OF HORRELA EGITEN DA EUSKAL HERRIKO HISTORIA ILUSTRATUA

Joseba Asironen eta Martintxo Alzuetaren lehen lanak ikustean, *Euskal Herriko historia ilustratua* obraren hastapenekoak, txundituta gelditu ginen ilustrazioen kalitateagatik, besteak beste. Une hartan bertan argi izan genuen ezkutuko lan hura guztia ezagutzera eman behar genuela nola edo hala.

Eta horrela jaio ziren atal bakoitzaren amaieran dauden making of-ak, artxiboan, ikerketan,


diseinuan emandako bakardadeko orduak nolabait konpentsatze aldera, eta, batez ere, Asironen eta Martintxoren elkarlana agerian uzteko. Benetan liluratzeko modukoa iruditzen zaigu haien artean lortu duten konpenetrazioa, horri esker lortu baitute lan aparta hau burutzea, gure iraganeko jendearen paisaiak guregana ekartzea eta etorkizunerako berreskuratzea, alegia. →→

Nola gertatu zen Matalasen matxinada? Kondairek dioten bezain epiko eta arriskutsua ote zen balea-ehiza? 1808an Donostia arpilatu eta erre zutenean, nola ikusiko zen dena airetik, eta nolakoa zen bertako kale Nagusia suntsitu aurretik? Nola egin zen 1794an 4.000 lapurtarren lekualdatze behartua, Munduteguy jeneralak agindutakoa? Nafarroako Erresuma 1521ean konkistatu ondoko urteak aztoramen eta asaldura sozial eta politiko handikoak izan ziren Euskal Herrian, gatazkaz eta gerraz

beteak. Alde batean, herri xehea eta pobrea, gehienbat nekazariak, abeltzainak eta arrantzaleak, eta, beste aldean, eliteak, banatuta, Espainiako nahiz Frantziako inperioen asimilazioaren eta bi estatuen errepresio bolada bortitzen artean. Testuinguru horretan, mota guztietako pertsonaiak sortu ziren: abenturazaleak, nabigatzaile handiak eta baleazaleak, emakumezko lehen idazleak, sorginak eta belagileak, konkistatzaileak, gerrillariak edo matxinoak...

Iruñeko Zitadela

Ilustrazio honen helburua Iruñeko Zitadelaren jatorrizko diseinua erakustea zen, eta agerian uztea izugarri handia zela hiriaren aldean, garai hartako segurtasun politiko faltak eta Iruñeak Frantziari begira zuen kokapen estrategikoak eragina izan baitzuten eraikuntzan. Irudirako abiapuntua hiriaren airetiko argazki bat izan zen, gaur egungoa, Iturrama auzotik ateratakoa, Gaztelugibeleko bazter batetik, hain zuzen: Zitadela erdian ageri da, eta gune historikoa atzealdean. Airetiko ikuspegi horrek XX. mendeko mutilazioen ondoko Zitadela erakusten zenez, Nafarroako Artxiboan dagoen maketa erraldoira jo genuen jatorrizko itxura berreskuratzeko. Bigarren arazoa sortu zen orduan, maketa horretan ageri den Iruñea lehenbiziko zabalgunek egin ondokoa dela, Erdi Aroko harresiak desagertuak zirela. Hori dela eta, hirugarren fusioa egin behar izan genuen harresietako mendebaldeko dorreak eta hormak eransteko, gaur egungo kale hauen ingurukoak: San Gregorio, San Anton eta Kale Berria. Amaieran, irudiak hiriaz helarazten digun ikuspegia inoiz azaldu gabea da, Erdi Aroko harresiak eta Zitadela bere aro gorenean ageri dituenekoa.




Bermeoko ikuspegia, 1783. urte aldera

Lan honetan hau izan dugu kezka nagusietako bat: ez mugatzea gertaera historiko handiak eta errege-erreginen eta printze-printzesen bizitzak kontatzera, baizik eta, batez ere, jende xehearen eguneroko gorabeheren berri ematea. Horretan ari ginela, behin batean, Bilboko Arte Ederren Museoko erakusketa batean, Bermeoko ikuspegi bat miretsi genuen, 1783. urte aldera Luis de Paret y Alcázar margolari madrildarrak egin. Gainera, jakin genuen harri gainean margotutako tarazea bat ere bazela, erabilitako teknikaren ondorioz marrazki eta bolumen argiakoak zituena, eta, horrela, arrantzaleen etxetxoak ezin hobeki ageri ziren margotuta. Gure lana, funtsean, ilustrazioaren gai nagusia Bermeoko herrigune bihurtzea izan zen, eta, horretarako, arreta hortik desbidera zezaketen elementu guztiak kentzea. Ilustratzaileari eskatu genion, halaber, etxetxoaren silueta nabarmentzeko, ia banan-banan.

JOSEBA ASIRON, MARTINTXO ALZUETA
Euskal Herriko historia ilustratua III
Marinelak, matxinoak, sorginak
eta ilustratuak

Historia · Ilustrazioa
Txalaparta
 128 orrialde

19,00 €
 15,20 € Klub



Xabier Mina gerrillaria

Xabier Mina Larrea gerrillariaren ilustraziorako abiapuntua garai hartako grabatu bat izan zen: kainoi baten ondoan ageri da, keinu indartsu batez ezpata zorrotik ateratzera doala. Gidoilariak, ordea, pertsonaiaren epika nabarmendu nahi zuenez, eskatu zion marrazkilariari keinu hori bera egiten irudikatzeko, baina zaldi gainean. Konposizio orokorrerako, Napoleon III.aren margolana hartu zuen Martintxok, André Dedreux-en lan bat (1810-1860), eta hortik datoz zaldiaren proportzio lerdinak eta jarrera estatikoa, baina aldi berean adi eta tentsioan egotearena. Ikus daitekeenez, elementu desberdinak bakoitza bere aldetik marraztu zituen: zaldizkoa, zaldia eta apaindura. Marrazkilariak Mina gerrillariaren aurpegia eskala handiagoan egin zuen, haren zantzuak hobeki islatzeko, eta ondoren proportzioak doitu zituen.



Donostiako sutea

Donostiako suteari buruzko ilustraziorako, marrazkilari batek aurrean izan ditzakeen zailtasun guztiak planteatu zizkion gidoilariak. Batetik, gaur egun bere horretan existitzen ez den toki bat irudikatzeko eskatu zion, alegia Donostiako Kale Nagusia, 1813an suntsitu aurretik, Koruko Ama Birjinaren elizaren inguruetan. Bestetik, goitik beherako ikuspegia egiteko eskatu zion, elizaren fatxada barrokoaren ikuskera modu bortitzean behartuz, eta, are gehiago, eszena gaez izatea nahi zuen, baina sute ikaragarri batek argituta. Zirriborroetan sortze prozesuko bi une ikusten dira, eta azken emaitzak argi erakusten du, beste behin ere, Martintxok ongi baino hobeki gaingitu zituela gidoilari maltzuraren exijentzia guztiak.